

# *Donejakue bidea*

Reyno de  
**Navarra**



**Nafarroa**<sub>ko</sub>  
Erresuma



Gobierno  
de Navarra



Nafarroako  
Gobernua



AGENDA  
2030



© NAFARROAKO GOBERNUA  
Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua

Bigarren edizioa - 2023ko azaroa  
Idazketa: Heda Comunicación  
Itzulpena: Traducciones CCI

LG NA 2539-2023

Ref.: C104

# Bost bidek

## eramaten dute Santiago

Espainiako Donejakue bidearen atea da Nafarroa. Bere kokapen geografiko abantailatsuarengatik, laster bihurtu zen iparraldetik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera elkarren artean guratzen diren bideen topagunea. Hona emaitza: Donejakue bideari esker sortutako ondasun artistiko eta kultural ezabaezinak egiten dio harrera erromesari. Donejakueko bideko bost ibilbidek gurutzatzen dute Nafarroa. Pirinioetan

barna Luzaiden sartzen dena eta Aragoitik etorrita Zangoatik pasatzen dena dira bi ibilbide garrantzitsuenak. Baina beste bi ibilbideak ere garrantzia hartuz joan dira azken urteetan: Frantziatik datorrena Baztanen barna, eta Medite-rraneoaren ingurutik abiatuta Erriberatik, Cortesetik, sartzen dena.

Eta berreskuratutako azken ibilbidea Sakanako bidea da, Irurtzundik Ziordira.



Iruña, Magdalenako zubia

### Frantziako Bidea: Luzaidetik eta Orreagatik Vianaraino

→ Biderik ezagunena Pirinioetatik sar-tzen da Luzaiden barna, Orreagara ailegatu baino kilometro batzuk lehenago. Zein dira erakargarritasun handienak? Bidean zehar, besteak beste, Orreagako kolejiata aurkituko dugu, Pirinioetatik Erdialderaino ageri diren pasaia ikusgarriak, Iruña eta bideko monumentu artistiko nabarmenetako ba-tzuk ere.

Paisaia pausoz pauso aldatuz joaten da. **Pirinioetako** basoetan ekingo diogu ibilbideari, pago eta haritzan artean, soro berdeen artean, eta teilatu puntadun etxeak dituzten han-hemenkako herri-txoetan barna. Iruñerriak aldatu egiten digu ikuspegia, eta, Erdialdean zehar au-rrera egin ahala, soroak zerealez, mahastiz, olibondoz eta arbendolondoz betez joango dira. Ibilbideak ahanztiko ez dituzun monumentuak erakutsiko dizkizu: Iruñeko elizak eta katedrala, Garesko zubia, Lizarrako San Pedro Ruakoa, Torres del Río-ko Hilobi Santua eta Vianako harresiak.

### Frantziako Bidea: Zangozatik Garesera

→ Arlesetik (Frantzia) abiatzen den Bide Tolosarraren jarraipena da eta Somporten (Huesca) barna sartzen da Iberiar penintsulan. Nafarroan, Zangozatik sartzen da eta Garesen egiten du bat Orreagatik

datorren bidearekin. Izugarri gustatuko zaizu, honako hauek txundituta uzten bazaituzte: jauregiak, ermita misterioitsuak (hala nola Eunatekoa), Erdi Aroko gazteluak, eta zereal-soroen paisaiak eta mahastiak.

### Baztango Donejakue Bidea: Urdazubitik Arrera

→ Bidea egiteko modu desberdin bat da antzinako adar hau. Baionako portua eta Iruña lotzen zituen, eta karabanak handik joaten ziren. Urdazubi eta Amaiur zinez herri ederrak, besteak beste, eta Baztan ibar osoa zeharkatzen ditu, Belateko gaina gainditu, Lantzetik igaro eta Iruñera iritsi aurretik. Misterioz eta kondairaz betetako bidea da, larreak eta basoak, jauregiak eta baserriak nonahi agertzen dituen. Benetan gomendagarria.

### Ebroko Donejakue Bidea: Cortesetik Castejonera

→ Ebro ibaiaren bidetik doa. Ebroko deltatik zetozen erromesek hartu ohi zuten. Logroñon egiten du bat **Frantziako bidearekin**. Cortestik sartzen da Nafarroan, eta Tuteratik igaro. Hiri monumentalak da hori, eta katedralak harritu egingo zaitu. Bikaina da arabiar, judu eta kristauen arteko elkarbizitza ezagutzeko. Nabaria da Bardeako basamortuaren eta Nafarroako hegoaldeko baratze oparoen arteko kontrastea.

### Sakana Bidea

Iruña eta Gasteiz lotzen zituen donejakueko bidea berreskuratu da. Ibilbidea Iruztzunen hasi eta Sakanako herriak gurutzatzen ditu, Ziordiraino, Arabako lurretan sartu aurretik. Ibilbideak belardiak eta basoak zeharkatzen ditu, eta ermitak han-hemenka agertzen dira, hala nola Itxasperriko Santiago basiliza. Zamartzeko monasterioa ere bidean dago. ■

# Gogoan hartu!

**Donejakue bideari ekin baino lehen, komeni da ongi prestatzea, ustekaberik ez izateko. Gogoan hartu oinarrizko aholku hauek:**

## Lehenbiziko araua: planifikatu

→ Etapen plangintza prestatu. Normalean, 20-25 bat kilometro egiten dira oinez, egunero; hasieran, etapa motzak egiten dira gorputza ohitzeko, eta, tartean, atsedengunen bat hartzen da.

## Jarraitu seinaleei

→ Donejakue bidea ongi seinaleztatuta dago. Gezi horiei edo bidean zehar aurkituko dituzun bestelako seinaleei jarraitu behar diezu. Oroitu errepidean zoazela ezkerreko bazterretik ibili behar duzula; alegia, ibilgailuek parez pare etorri behar dute, eta elementu islatzaileraren bat jantzi behar duzula.

## Bero-orduak eta jateko aholkuak

→ Saiatu bero handieneko orduetan ez ibiltzen, eta jan karbohidratotan aberatsak diren elikagaiak (ogia, zerea-lak, pasta,

arroza, gailetak, fruta eta fruitu lehorrak). Ibilbidean zehar, energiaz hornitu frutarekin eta fruitu lehorrekin, eta edan likido asko.

## Nola jantzi?

→ Arropa arina, iragazkorra, eta erraz garbitu eta idortzeko modukoa erabili. Eraman kapela edo txanoa eta zira. Ez erabili oinetako erosi berri-berriak Donejakue bidea egiteko. Aukeratu oinetako arinak eta orkatilei ongi eusten dietenak.

## Ez ibili barraskilo baten antzera

→ Bizkar-zorroak arina eta anatomikoa izan behar du, eta loturak izan behar ditu gerrialdean eta bularraldean.. Jarri objektu pisutsuenak eta handienak goitik behera eta bizkarretik hurbil. Aldeetako sakeletan, sartu gehien erabiltzen dituzun objektuak.

## Botika-kutxa, zure lagunik hoberena

→ Ez ahan-tzi botika-kutxa, beharrezko gauza guztiekin, baita eguzkirako krema ere, badaezpada. ■





# Aukeratu lo egiteko lekua

**Aukera asko daude Nafarroan ostatu hartzeko bidea egiten duzun bitartean. Ohikoena errones-aterpetxeak dira, baina batzuek nahiago dute hotel, hostel, ostatu-etxe, kanpin, apartamentu edo landa-etxeetan ostatu hartzea.**

Aterpetxeak aukeratu badituzu, oso zerrenda luze eta askotarikoa izango duzu bide osoan zehar. Errones-kredentziala izatea da aterpetxeetan sartu eta ostatu hartzeko baldintza bakarra.

QR honek zerrenda osoa ematen dizu.

Ostatu-eskaintza zabala dago bideko herri eta hirietan, eta, horri esker, jende-pilaketak saihesten dira etapa-amaieretan eta beren nahira antola ditzakete etapak erronesek.

Kontsultatu hemen Nafarroan dauden alojamendu desberdinen informazioa. ■



Iruña, erronesak



# Seinaleei lehentasuna



**Mugikorrek eta GPSak ezinbesteko bidaide bilakatu badira ere, bidearen seinaleei jarraitzea gomendatzen dizugu. Eragin zentzumen guztiei, beraz, eta gozatu inguruan izango duzun guztiarekin.**

## Gezi horia

→ Jarraitu gezi horiei. Bide nagusitik ateratzen bazara nahi gabe, berehala aurkituko duzu Donejakue bidea gezi horiei jarraituz gero.

## Informazio-panelak

→ Herri nagusien sarrera eta irteeran dauden informazio-panelek ohar eguneratuak, mapak eta aholkuak eskaintzen dizkizute.

## Anagrama horia zeramika urdinaren barruan

→ Hiriguneetan barna, jarrai iezaezu kolore urdineko zeramikei (bideko maskorra horiz ageri da barruan).

## Mugarri zeramikadunak

→ Bidegurutzeetan edo bat-bateko norabide-alaketetan ageri dira.

## Errepideko seinaleak

→ Errepidea utzi eta bide edo bidezidor batean sartuko zarela adierazten dute. Ibiltari bat irudikatzen dute.

## Beste seinale batzuk

→ Seinale bereziak jarri dituzte ibilbideko zoladuran bideak zeharkatzen dituen herri eta hiri batzuetan. Metalezko edo zeramikazko maskorrak izan ohi dira.

## Track-ak

→ kontsultatu Donejakue bide guztien track-ak **"Turismo Navarra Wikiloc"**-en. ■





# Historia pixka bat

**Donejakue bidea egin baino lehen, jakin behar zenuke Erdi Aroan bizi izan zutela lehenbiziko erromesek hasi behar duzun esperientzia paregabea. Compostelan IX. mendean Santiago apostoluaren hilobia aurkitu eta gero, hiri hori erreferentzia-puntu bihurtu zen kristau-herrian, Erromarekin edo Jerusalemekin gertatu zen bezala.**

Imajinatuko zenuenez, Nafarroa nahitaezko igaroleku bihurtu zen milaka errome-sentzat Europatik Galiziarako bidean. Erromesen uholde horrek ekarri zuen bulkaldi ekonomiko, sozial eta erlijiosoa dela eta, Erdi Aroko Nafarroako erregeek ospitaleak, monasterioak, elizak eta ermitak eraikitzea sustatu zuten, eta atzerriko maisu eta artistek hantxe utzi zuten aztarna. Antso III.a Gartzez Nagusiak egin zuen lanik handiena Donejakue bidearen alde; izan ere, ibilbideak batu egin zituen eta Errioxako lautada aldera birbideratu zuen bidea.

Compostelako bideak XI. eta XV. mendean artean izan zuen goieneko unea, arte erro-

manikoaren loraldia gertatu eta klunitar eragina iritsi zen garaian. Horren ondoren, bidea arriskutsu bihurtu eta garrantzia galduz joan zen, XX. mendearen bigarren erdialdera arte, orduan berpiztu baitzen.

1987an, **Europako Kultura Ibilbide Nagusi** izendatu zuten eta, sei urte geroago, **Gizateriaren Ondare**. Orduz gero, urtero, zu bezalako milaka ibiltarik ekiten diote bideari, fedea bultzatuta, kasu batzuetan, edo kulturak eta kirolak, beste batzuetan; baina denek gogo bera dute lekuak eta lagunak ezagutu eta une ahaztezinak bizitzeko. ■

Zangoza, Andre Maria elizaren portada





# *Diseinatu zeure bidea*

***Bizi-esperientzia bat da Donejakue bidea egitea, eta, horregatik, aunitz dira egiteko moduak.***

Batzuek bizikletaz egiten dute, eta beste ba-tzuek, zaldi gainean; bada autoz egitearen erosotasuna nahiago duenik, eta askok ohiko moduan egiten dute: oinez. Berdin hunkigarriak dira guzti-guztiak, eta guzti-guztiek emango dizute Donejakue bideak

Nafarroan barna biltzen duen oparotasun natural eta kulturala ezagutzeko aukera.

Zuk aukeratzen duzu non hasi eta non bukatu etapa bakoitza, zure egoera fisikoaren edo denboraren arabera.

Bidea oinez egin duen erromes baten ahots eta begien eskutik aurkeztuko dizugu jarrian Donejakue bidea, Topatzen diren herri eta hirien funtsa, esentzia ahogozatzeko beharrezko sosegua bidaide. ■



# Ongi jan, ongi joan

**Nafarroako gastronomian barnako ibilaldia mugagabea da. Donejakue bidea egitea dastamenerako plazera ere bada, eta, txoko bakoitzean, sukaldaritza-sorpresa bat topatuko duzu.**

Luzaide eta Orreaga inguruan, oso ohikoak dira ehizakiak, hala nola basurde- edo orein-gisatua, amuarrainak urdaiazpikoarekin, artzainaren ogi-apurrak, perretxikoen nahaskia eta perretxikoekin egindako bestelako plateren bat. Eta, postrerako, gaztak eta gaztanbera.

Bertako txistor tipikoa ezagutzen ez baduzu, eska ezazu Zubirin (halaxe egi nuen nik), eta ikusiko duzu nola errepikatuko duzun hurrengo etapetan.

Iruñean harrituta geldituko zara alde zahar guztian zehar dagoen giroarekin, eta ohiko pintxoak nahiz sortu berriak eskatu ahal

izango dituzu taberna askotan; Nafarroako ardo ederrak ere zerbitza-tzen dituzte, baita sagardoa eta garagardo tradizionalak ere. Iruñeko eta Nafarroa osoko jatetxeetan, besteak beste honako jaki gozo hauek biltzen dituzten menuak aurkituko dituzu: barazki freskoak, menestak, zainzuriak eta Iruñerrian ohikoa den odolki gisako hestebetezuri gozo eta osasungarria (relleno). Patxarana da likore tipikoa, eta Nafarroa osoan aurkituko duzu.

Garesen, piperrak dastatu beharko ditugu; oso gomendagarriak bakarrik jateko, nahiz bildoskiari, txerrikiari edo aratxeikiari lagun

Pintxoaren Astea





Ultzamako gaztanbera



Ogi-apurrak artzain erara



Zainzuriak



Txistorra



Erronkaribarko gazta



Tuterako orburuak

eginez Erdialdean egindako ibilbidean ulertuko duzu zergatik badiren lurralde honetan ardo on eta olio bikainak. Ez joan Estellerritik honako hauek dastatu gabe: txerrikumea, trufak, olioak, patxaranak, eta Nafarroako edo Errioxako Jatorrizko deitura duten ardoak. Erromesek ere gozatu ahal izango dute bi txo-rrotadun iturri batekin, batetik ura eta bestetik ardoa ateratzen baita. Nahitaezko geldialdi suspergarria, zalantzarik gabe.

Ezagutzen dituzu Zangozako potxen dohainak eta kalitatea? Potxa babarrun goiztiar zuria da, eta badakite Zangozan inon ez bezala hazten.



Sagardoa

Donejakue bideko ibilbide alternatiboetako bat aukeratu baduzu, honako hauek gomendatzen dizkizut **Baztanen** bazaude: baztan-zopak, onddoak eta perretxikoak, pateak, mota guztietako haragiak eta "Xurita beltzak" (bildotsaren odolarekin eta hesteekin prestatutako plater gozagarria). Eta gozozalea bazara, txantxigorri-opilak, gaztanberak eta "Urrakin egina" (hurrekin egindako txokolate gozo-gozoa) probatu behar dituzu nahitaez.

Eta zer esango dizut, bada, Nafarroako hegoaldeko gastronomiari buruz, **Ebroko bidea** aukeratu baduzu: dagoeneko zainzuriak eta piperrak gomendatu ditugu (bikain prestatzen dituzte inguru horretan), baita kukuluak, orburuak, kardabera eta meneztrak ere; azken horiek Erriberako baratze emankorretatik datozen barazkiekin prestatzen dira. Produktu gozo-gozoak aurkituko dituzu **Sakanako bidean**: gazta, mamia, txistor famatua eta sagardo naturala, besteak beste.

Gustura ibiltzea eta ongi jatea eskutik helduta doaz Nafarroan. Lurralde honetako xarmaren funtsezko zati baitira. ■




# *Frantziako bidea.*

Luzaide eta Orreagatik Vianara



## Donibane Garazi-Orreaga

**Aitortu behar dut Donejakue bideko etapa honek errespetua ematen zidala. Haren gogortasun eta maldei buruz hitz egin ahal zidaten, baina baita hango paisaia ikaragarriez ere. Hala ere, ez nuen imajinatuko etapa hau berezienetako eta gogoan gehien gorde dudaketako bat izango zela. Batetik, Erdi Aroko erromesen azalean sartu ahal izan nintzelako eta, bestetik, topatu nituen arte- eta natura-altxorrengatik.**



→ Bi aukera ditugu etapa hau egiteko, baina horietako bat gomendagarriagoa da eguraldi txarra egiten badu edo asko disfrutu nahi ez badugu: Luzaiden barna pasatzen dena. **Gainera, azaroaren 1etik martxoaren 31 arte nahitaez erabili behar da ibilbide hori.**

Edozein bide aukeratzen duzula, sasoian egon beharko duzu; izan ere, zazpi orduko ibilbidea da eta 1.000tik gorako desnibela gainditu

beharko duzu. Edonola ere, ibilbideari buruzko zalantzak sortzen bazaizkizu, bidearen zati honetan zehar, badira zenbait laguntza-zerbitzu: hiru wifi-puntu, zenbakitutako egurrezko zutoinak, erreferentzia gisa, eta larrialdietarako telefono bat.



**Donibane Garazi** (Ostabatetik hurbil) dugu abiapuntua; hantxe egiten dute bat Donejakue bideko hiru ibilbide handik. Doniba-



Orreagarantz, maldan behera



Orreaga, Andre Maria eliza



Orreaga

ne Garazi hiriari buruz gauza asko entzuna nituen, baina nire aurreiritzi guztiak gairatu ditu. Ibilbidea abiatu baino lehen, merezi du hango zitadela, gaztelua edo eliza gotikoa bisitatzea. Erakargarritasun handi horiek ikusitakoan, Espainiako kaletik (rue d'Espagne) atera beharko duzu herritik, Espainiako portaleraino (Porte d'Espagne) ailegatu arte.

### Pirinioak gurutzatzeko bi ibilbide

Puntu honetan, bi ibilbideren artean aukera dezakezu. "Napoleonen Ibilbidea" izenekoa gogorrena da, mendian barna igarotzen delako; Honto auzora eramango zaitu; Bentarteako eta Lepoeder lepoak pasatu eta Ibañetako gaineraino ailegatuko zara; eta, handik, modu zorabiagarrian jaitsiko zara Orreagaraino, basoan barna.

**Luzaiden** barna doana da errazena eta neguan egitekotan gomendatzen dena. Mugan dauden bentetara ailegatzean, hartu Arnegiko garai bateko aduanako aparkalekura doan pista estua. Hortik abiatzen da NA-135 errepidea, Luzaidera emango ziatuena. Pirinioetako muga-herri hori ospetsua da bere usategiengatik eta pilotari famatuaren sorterria izateagatik. Ez joan Santiago Apostolua eliza eta erromesaren monumentua bisitatu gabe. Jorge Oteizaren lana da erromesak omentzeko monumentu hori.

Luzaidetik aurrera, tarte gogor samarrak aurkituko dituzu. Bidea gaztainondoan, urkien eta hurritzen artean igotzen da; erreken eta belardien ondotik igaro eta **Ibañetako gainera** eramaten duen pago-baso bat zeharkatzen du. Gain horretan gertatu omen zen Errolanen kantuan jaso zen gertakaria, Orreagako

gudua, alegia. Puntu horretan merezi du atseden hartzea eta Errolanen oroimenez eraikitako monolitoa eta San Salvatore kapera begiestea. 1965ean inauguratu zen kapera, XII. mendean Orreagan lehen erromesentzako ospitalea eraiki leku berean.

### Orreaga, amestutako babeslekua

Ibañetako gainetik jaitsiko gara ibar batetik **Orreagaraino**, hau da, gure azken helmugaraino, edertasun handiko bidezidor bat igarota. Erljiogune garrantzitsu horretan, benetako bitxiak aurki ditzakegu. **Andre Maria kolejiata** nabarmentzen da; erro-mesentzako ospitalea izan zen garai batean, eta han gordetzen dira Antso VII.a Azkarraren gorpuzkiak.


Ez joan Orregatik honako hauek ikusi gabe: Santa Maria eliza (XII.-XIII. mendeak), estilo gotiko frantsesekoa; Karlomagnoren siloa (XII. mendea), eta museoa-liburutegia, non Karlomagnoren xakea eta Miramolinen esmeralda ikus baitaitezke. Orreagan, arratsaldero ematen da erromesei eskainitako meza, eta ofizio horrek Donejakue bidea egiten ari diren lagun guztiak ditu helburu.

Orreagak dituen xehetasun eta erakargarritasun guztien berri izateko, galdetu bisitaldi gidatuei buruz. Nik hala egin nuen, eta bete-betean asmatu nuen. Ez ahaztu zure kredentziala Erromesaren bulegoan zigitlatzea, eta, oraindik ere gogorik baduzu ingurune naturala ezagutzeko, hurbildu zaitez Basanjaunberro basoraino, "Basa-jaun" pertsonaia mitologiko bitxia ezagutzeko aukera emango dizu eta. ■



## Orreaga-Zubiri

**Basoak, belardiak, sorginen kondairak eta Pirinioetako ohiko herriak izango ditugu bidelagun etapa horretan; eta teilatu puntadunak dituzten harrizko etxeek osatzen dituzte horko herriak. Mendate txiki batzuk gaingitu eta gero, Pirinioak utzi eta Esteribarrera jaitsiko gara.**



→ Atzean utziko dugu **Orreaga**ko kolejiata osatzen duen multzo arkitektonikoa eta bidearen bigarren etapari ekingo diogu. Ez dago bidean galtzerik; izan ere, lehen kilometroetan, errepidearen (N-135) paraleloa den bide batetik doa eta “Sorginaritza-ga” basoa igarotzen du. Oroitzen naiz lekua magikoa iruditu zitzaidala, beharbada erraz bidaiatu ahal izan nuelako denboran zehar eta mila kondairek kontatzen dituzten akelarreak irudikatu.

**Auritz** da bidean topatuko dugun lehen herria. Herri eder hori Interes Kulturalerako Ondasuna izendatua da, eta bi edo lau isurbideko teilatu puntadun etxetzarrek osa-

tzen dute. Bideak San Nikolas karrikan barna gurutzatzen du herrigunea, errepide nagusi-an zehar.

Ez da harritzekoa Ernest Hemingwayk han osatua hartu izana, Pirinioetako erreka ederretan arrantza egiten erlaxatzeko. Merezi du herrian geldialditxo bat egitea, hango etxeak eta hilerria miresteko; izan ere, zenbait sari irabazi ditu bere edertasun eta bitxitasunarengatik.

San Nikolas eliza igarotakoan, bideari segitu eta Urrobi erreka gurutzatuko dugu egurrezko zubi batetik. Pasaia harrituta utziko zaitu bere belardi handiekin, baso-txoekin eta erreka-txoekin; azken horiek harrizko



Auritz



Aurizberri, hilerria

pasaguneetatik gurutzatu beharko dituzu. Aprobetxatu atzera begiratzeko eta Piriñoetako ikuspegi ikaragarriez gozatzeko.

Zenbait kilometroz ibili eta malda bat edo beste igaro eta gero, **Aurizberriko** teilatu gorri eta inklinatuak begiztatuko dituzu. Karrika nagusiari begira dauden etxeak ageri dira berriz ere herri xarmangarri horretan. Kasu honetan ere gomendatzen dizut hilerrira hurbiltzeko eta hango altxor nagusietako bat begiesteko: hainbat garaitako hilarrien sorta ederra.

### Zailtasunak oraintxe hasiko dira

Pirinioak atzean utzi ahala, maldak eta pendoitzak hasten dira. **Mezkirizko gaina** (920 metro) da horietako lehena. Mendateko gainera ailegatu baino lehen, Orreagako Ama irudikatzen duen estela bat ikusiko duzu. Jarraitu hori koloreko geziei eta gozatu hurrengo herriraino (Bizkarreta-Gerendiain) eramango zaituen pagadi izugarriaz.

Bi kilometro haratago, **Lintzoain** dugu. Herriko goialdean, San Saturdi eliza erromanikoa dugu, XIII. mendekoa. Behealdean, berriz, pilotalekuaren ondoan, iturri bat aurkituko dugu, eta ongi etorriko zaigu gure burua hidratatzeko eta **Erroko gainera** eramango gaituen zatiari ekiteko. Sartu baso-ingurura eta utzi alde batera Mendateko benta; garai batean, ostua izan zen, baina, gaur egun, hondakinak bakarrik

geldi-tzen dira. Zorionez, hemendik aurrera zati guztia maldan behera da, baina kontuz ibili behar da harri solteekin.

Bidearen bukaeran, **Zubiriko** zubi ospetsua izango duzu zain. "Errabiaren zubi" deitzen zitzaion, uste baitzuten azpitik pasatzen ziren animaliei *errabia* sendatzen zitzaie. Zubi horrek ematen dio udalerriri izena. Paseatu presarik gabe hango kaleetan barna eta bilatu oraindik ere kontserbatzen diren XVIII. mendeko etxeetako bat, baita arrautza ustelen usaina duen uraren iturria ere, tradizio herrikoiak dioenez propietate osagarriak ditu eta. Esteribarko hiriburua da eta, han kontatu zidatenez, Erdi Aroan "ehiztarien ibarra" deitzen zioten, ehizarako zituen pribilegioengatik eta zerga gisa ordaintzen ziren ehizakiengatik. ■


Zubiri, Errabiaren zubi





## Zubiri-Iruña

**Ongi etorri zubien etapara! Errabiaren zubiarekin hasi eta Bidelapurrena eta Magdalenarena aurkituko ditugu. Horiek denek Arga ibaia zeharkatzen dute, eta ibai horri segitu beharko diozu arrastoa bideko lehen hirira ailegatzeko. Iruña.**



→ Etapa hau Errabiaren zubian hasten da, eta gurutzatu beharko duzu Zubiriko industrialdea zeharkatzeko. Zolatutako pista batek bi herri txikitaraino eramango zaitu: **Ilarratz** eta **Ezkirotz**.

Bi kilometro aurrerago, **Larrasoña** ematen digu ongietorria. Etapako lehen herri handia eta, beraz, indarrak berritzeko leku erabat gomendagarria. Herrigune horretara sartzeko bidetik atera behar da eta "Bidelapurren zubia" gurutzatu. Erdian Aroan erromes askori han lapurreta egin ziotelako deitzen da horrela. Larrasoña ongi zaindutako herria da eta Donejakueko

bidean tradizio handia du, XI. mendean eta erromesen ospitalea Armarridun etxeak begietsi eta Bariko San Nikolasi eskainitako parrokia-eliza bisitatu

### Arga ibaiko soinuaren bila

Donejakue bideak **Akerretaraino** jarraitzen du. Erdi Aroko herri horretan Antzaldatzearen eliza dugu ikusgai, bere dorrearekin eta Erdi Aroko portadarekin. Handik, bidea zuhaitzen eta sastraketa artean jaisten da Arga ibaiaren bazterreraino. Zein atsegina den uraren zurrumurrua entzutea, eta udan, are gehiago, bero handiko egunetan!



Iruña, Frantziako portalea



Arre, zubia



Iruña, erromesak



Iruña, Zaldi Zuria



Iruña, Andre Maria katedrala

Abiatu **Zuriain** aldera, eta, seinaleei jarraituz, jo **Irotz** aldera. Hantxe aurkituko duzu Iturgaitzeko zubi erromanikoa (XII. mendea). Kasu eman seinaleei, puntu honetan bertan bidea bitan banatzen baita. Arre/Atarrabia/Iruña markatzen duena hartu behar da eta **Iruñerriko Ibai Parkera** eramango zaitu.

**Zabaldikara** ere sar zaitezke 700 metro inguru desbideratzen bazara; han, San Eztebe eliza bisitatu ahal izango duzu: Erdi Aroko eraikina da eta Gurutziltzatuen tailu bat eta XIV. mendeko ezquila gotiko bat, Nafarroako zaharrenetako bat, biltzen ditu.

Herriko behealdeko auzoa erabat zeharkatu baino lehen, adi egon norabideak adierazten dituen zutabe bati, eta aukeratu Argako Ibai Parkeko bidea markatzen duena. Askaldegien gune bat eta Iruñeko Ingurabidea lur azpiko pasabide batetik (Ekialdekoa) zeharkatu eta gero, **Arreko Hirutasuneko ermita eta**

**haren zubia** (ustez jatorri erromatarrekoa) topatuko dituzu. Merezi du geldialdi bat egitea eta basilika horri argazkiren bat egitea; izan ere, XII. mendeko erromesen antzinako ospitale baten parte da. Horrez gain, Ultzama ibaiaren ur-jauziez goza dezakezue han.

Atarrabiako pilategiaren barruan kuxkuxean ibiltzea ere gomendatzen dizut, aurreko metro gutxitara baitago eta Argako Ibai Parkeari eskainitako ingurumen-hezkuntzarako zentro bat baitu barnean.

### Hiri-girora itzultzea

Donejakue bideak **Atarrabiako** kale Nagusitik aurrera egiten du, eta, han, 1558. urtean egindako erakin errenazentista bitxi bat ikusi ahal izango duzu. Aurreraxeago, Domingotarren eraikina dago, eta herriko mugan ehun urte baino gehiago dute Nekaritza Perituen Eskolako eraikina ere. Segitu **Burlatako** Kale Nagusitik, N-121 errepi-



Iruña, katedralaren klaustroa



Iruña, San Lorentzo eliza



Iruña, Taconerako lorategiak



Iruña, Ziuadela

deraino Gurutzatu ezazu. Ez galdu zoladuran dauden seinaleen arrastoa. Burlatako bidera eramango zaituzte, eta, gero, **Iruñera**, bidearen lehengo hirira. Zuhaitzak ditu pasealekuak hasieran.

Gero, Magdelanako zubiraino eramango zaituen errepide estuaren bazterbidetik joan beharko duzu. Zeharkatu antzinako gotorlekuak eta sartu Iruñeko alde zaharrra Frantziako portaleko zubi altxagarritik. 1553koa da harribitxi tiki hori, eta osorik du jatorriko egitura.

Egin beharreko bisitak: **Andre Maria katedrala**, zeinaren fatxada neoklasikoak eraikin gotiko ederra ezkutatzen baitu (klaustroa, gotikoa, zoragarria da) eta Zaldu Zuriko behatokia. Atera balkoi eder horretara, erlaxatu egingo zaitu-eta panoramikak. Iruñera ekarri zaituen etapan ibilitako azken metroak izango dituzu begi-bistan, besteak beste.

Aprobetxatu lehen hartu-emanak Nafarroako hiriburuarekin kaleetan arnasten den giroa ezagutzeko. Bertakoen alaitasunak eta abegi onak besarkatuko zaituzte. Ziur aski, alde zaharreko ostatuz ostatu bukatuko duzu eguna pintxo erakargarriak probatzen. Egondia inoiz bukatuko ez balitz nahiago zenuke! ■




Iruña, pintxoak



## Iruña-Gares

**Bideak Iruñerria atzean utzi, eta Errioxara daramaten lehen mahastien bila jotzen du. Erreniagako gainean bizi izan nuen une gogoangarrietako bat, bideari eskainitako monumentuaren ondoan. Bai bista ederrak!**



Gutxi gorabeherako distantziak

→ Bidea **Iruñeko** alde zaharreko kaleetatik abiatzen da. Andre Maria katedrala bisitatu eta Mercaderes eta Estafeta kaleek bat egiten duten tokira (entzierroaren ibilbideko bihurtunerik ospetsuena dago han) iritsi ondoren, Udaletxe plazara eramango zaitu bideak. Uste baino txikiagoa irudituko zaizu, baietz! Denoi iruditzen zaigu, baina ziur nago ikusi orduko liluratuko zaituela udaletxeak, estilo barrokoa eta neoklasikoa batzen dituen fatxada zoragarria baitu.

Tokiak hiriaren irudi internazionalerako bat ekarriko dizu burura: txupinazioa, hots, festei hasiera emateko ekitaldia, uztailearen 6 guztietan. Handik, **San Saturnino** kalera iritsiko zara. Sartu izen bereko eliza erromaniko ederrera. **Kondestablearen jauregia** Kale Nagusiaren

hasiera da. Kale horretan, Ultreia-Donejakue Bidearen Interpretazio Zentroa dago. Handik, **Taconera** parkerantz, joan Pio XII.a etorbidetik eta **Gatzelugibelera** iritsiko zara. Benetako gerriko berdea da, **Ziudadelaren** inguruan.

Berdegunea alde batera utzi, eta Fuente del Hierro kalera eramango zaituzte seinaleek. Aldapan behera, Nafarroako Unibertsitate-raino iritsiko zara. Bide zolatu batek **Zizur Txiki** raino eramango zaitu, aldapan gora oraingoan. Erdi Aroko hainbat altxor aurkituko dituzu han, hala nola San Migel eta San Emeterio eliza erromanikoak. Herria atzean utzi, eta landazabalean murgilduko gara, zereal-soroak lagun. Zerumugan, goi-goian, Erreniegako parke eolikoaren haize-errotek markatzen dizute bidea.



Erreniegako gaina, monumentua bideari



Gares, monumentua erromesari

2 kilometro ibili beharko dituzu maldan gora **Zarikiegira** iritsi aurretik. San Andres eliza erromanikoak egingo dizu harrera. Iturri bat dago tenpluaren ondoan, Erreniegaraino eramango zaituen mendate laburrari ekiteko beharrezko indarrak emango dizkizuna.

### Iruñerria, zure oinetan

Aldapa igo ahala, aerosorgailuen hegal itzelak bueltaka antzemango dituzu buruaren gainetik. **Erreniegako gainera** iritsita, kendu motxila bizkarretik, jan zerbait eta egin argazkiren bat Donejakue bidearen monumentuan (1996). Aro desberdinetako hainbat erromes irudikatzen ditu, haize-erroten lerroarekin bat egiten dutenak. Zur eta lur utziko zaitu Iruñerriaren eta Erdialdearen gaineko panoramikak.

Bide zabal eta harritsu-harritsu batek eramango zaitu beherantz. Paisaia mediterranea hasten da nagusitzen hemen argi eta garbi, karraskak eta abaritzak kasu. Hiru kilometro aurrerago, **Uterga** dago, Izarreibarko lehen herria. Hango iturriak jaitsiera gogorrak eragindako egarria asetzen lagunduko dizu.

Hurrengo herria **Muruzabal** da, txikia, zereal-soroek, almendrondoek eta mahastiek inguratua. Herrigunea zeharkatuz gero, Muruzabal jauregi barrokoa ikusiko duzu; upategia da gaur egun. Indarrik baduzu ora-indik, egin ahalegina eta desbideratu Eunateko eliza erromanikora. Sei kilometro dira, baina merezi du.

Aldapa bat igarota, **Obanosera** iritsiko zara. Udaletxe plaza, San Joan Bataiatzailea elizaren ondoan, San Gilen eta Santa Feliziaren misterioaren hamaika emanaldiren antzektokia izan da. Oso lotura handia du istorioak Donejakue bidearekin.

*Legendak dio Feliziak, Akitaniako noble gazteak, Amokain herri nafar txikian neskame geratzea erabaki zuela Donejakue bidea amaitu ondoren, familiako tradizioari jarriki. Haren berri izan zuenean, Gilen anaia sumindu, eta arreba hil zuen. Nahigabetuta eta damututa, Santiagora jo zuen erromes. Itzultzean, ermita bat eraiki zuen Arnotegin, eta hantxe geratu zen bizitza osoan, otoitzera emana. Feliziaren gorpua Labianora eraman zuten. Geroztik, hango jendeak erlikiak beneratzen sendatzen ditu buruko minak.*


Joan Obanosko atearen arku zorrotza- ren azpitik, eta jarraitu maldan behera, Arrizabalaga-Gares erreperideraino. Handik, Robo ibaiak bustitako baratzeen ertzetik eramango zaitu bideak.

Ostalaritza-establezimenduek **Garesen** sartzen ari zarela adieraziko dute. Donejakue bidearen bi adar nagusiak batzen dira Erdi Aroko herri horretan, zeinaren multzo historikoa kultura-intereseko ondasun izendatu baitute. Erromesaren omenezko monumentua ere badu herriak. ■



## Gares-Lizarra

**Honako elementu hauek osatzen dute Frantziako bidearen bosgarren etapa: errituala duen zubi erromaniko bat, zereal- eta mahasti-paisaiak, galtzada bat, xarma handiko herri bat eta ibai gazi bat.**



Gutxi gorabeherako distantziak

→ **Garesen**, Gurutzearen kalean hasten da ibilbidea. Eliza eta sanjuandarren komentua lotzen dituen arkuaren azpitik pasatu, eta gurutzatu errepidea, Kale Nagusi luze eta dotorerara sartzeko. Bisitatu Santiago eliza, XIII. mendearen hasierako portada baitu. Kalearen bukaeran, altxorrik handiena izango duzu zain: erdi-puntuko sei arku dituen **zubi erromanikoa**. Hemen "Txoriaren kondaira"ri buruz hitz egingo dizute. *Istorioak dio txori txiki batek egunero garbitzen zuela zubiaren erdiko dorrean kokatutako Ama Birjinaren irudia. Txoriaren bisitaldiak 1840 eta 1843 bitartean daude dokumentatuak, azken urte horretan dorrea eraitsi eta Txoriaren Ama Birjina San Pedro elizara eraman baitzuten.*

Zubiurrutiatik aterako gara Garesetik. Auzo horretan, Espiritu Santuaren Komendadoreen komentua dugu. Jarraitu kilometro pare batez, Arga ibaiari jarraituz, eta ekin iezaiozu gogoz A-12 Bideko Autobiaren ondoan bukatzen den maldari. Handik, **Mañeru** herria ikusi ahal izango duzu; nekazaritza-pista batetik iritsiko zara hara, eta bide-gurutzeak emango dizu ongietorria.

Mañeruko irteeran, mendi baten gainean eraikitako Erdi Aroko burgu bat ikusiko duzu. **Zirauki** da, herri ezin politagoa, nire begietan betiko gordeta gelditu dena. Zereal- eta mahasti-lurrez inguratutako bidezidorra igaro eta gero, garai bateko harresietako ate batetik sartuko gara. Ia lehen unetik bertatik, herrigunera eramaten duten Erdi Aroko



Lizarra, Kartzelako zubia



Lizarra, Hilobi Saindua eliza



Lizarra, Erromesen kalea

kalekak malda pikoak dira; beraz, prestatu zaitez ederki izerditzeko. San Roman eliza da arte-erakargarritasun handiena; Erromanikoaren bukaerako portada ederra du, Garesko Santiago edo Lizarrako San Pedro Ruakoa elizetakoen antzekoa.

### Munduko turismo-gida zaharrena

Ziraukitik atera eta milurteko harrien alfonbra batekin egingo duzu topo. Diotenez, Asturicara (oraingo Astorga) zihoan galtzadaren zati bat da. Bideak Salado ibaiaren ur-bazter aldera jotzen du, eta Allozko kanalaren biaduktuaren (1939) azpitik pasatutakoan iritsiko gara hara. Salado ibaiak **Kalistoaren Kodizeak** bere bosgarren liburukian aipatutako lekuetako bat da; hura XII. mendeko gida gisako bat da, eta erromesari aholkuak, eta ibilbideari, arte-lanei eta bertako ohiturei buruzko deskribapenak ematen zizkien. Kodizeak zioenez, erreka horren urak oso arriskutsuak ziren: "Kasu eman eta ez edan handik, ez zuk, ez zure zaldia, erreka hilgarria baita!". Lasai, ur horiek gatzetan aberatsak dira, baina ez hilgarriak.

Salado ibaiaren ur-bazterra utziko dugu, ojiba-arkuak dituen Erdi Aroko zubitik zehar-katuta, eta Lorkarainoko kilometro gogor-ri ekingo diogu. Herri hori Deierrri ibarraren parte da, eta San Salvatore elizaren abside entzutetsuak egingo digu han ongietorria. Kale horretatik jarraitu herriaren bukaerara ailegatu arte, eta hartu **Villatuertara** doan

errepidetik hurbil dagoen bidea. Hurrengo herri horretako plazan, Deikundea eliza topatuko dugu, Nafarroako gotikoaren har-ribitxietako bat.

Azken kilometroak etengabeko goiti eta beheitiak dira, Arga ibaiak zeharkatzen duen zubira ailegatu arte. Gurutzatu eta berehala, bideak **Lizarra** (kultura-intereseko ondasun izendatua) monumentalaren jatorrira eramango zaitu, hots, Larrugileen kalera. Hantxe dago Hilobi Santua eliza. 1881. urtetik itxia badago ere, haren portadak (XIV. mendea) geldialdi bat merezi du. Nafarroako eskultura gotikoaren erakusle hoberenetako bat da eta, arretaz begiratzen baduzu, harrituta geldituko zara hango eskultura delikatuak ikustean, non apostoluak eta Kristoren bizitzaren zenbait eszena irudikatzen baitira. Orain, Erromesen kalea hartu eta zoaz giroaz gozatzerara. ■


Lizarra, Foruen plaza (larrain-dantza)





## Lizarra, Los Arcos, Viana

*Primeran gogoratzen dut Frantziako bidearen azken tartea, Lizarratik Vianaraino daramana: espero baina gogorragoak izan ziren igoera-jaitsierak, etengabeak, eta horregatik egiten dituzte batzuek bi etapatan 40 kilometro horiek. Nagusi da Donejakue bidea Erdialdeko bazter eder hauetan. Nik bezala, zuk ere itzuli nahiko duzu. Ziur nago.*



→ Banuen **Lizarra**ren entzuera, eta aitortu behar dut liluratuta utzi ninduela. Paseatu patxadaz alde zaharrea barna, eta gozatu merkataritza-jarduera biziaz eta gastronomiaz.

Larrugileen kalea atzean utzi, eta zaharber-ritutako zubi erromanikotik joango zara. Rua de los peregrinos kalean sartuko zara orduan. Antzinako merkataritza-jarduera berreskuratzen ari da kalea, pixkanaka. San Martín plazara iritsiko zara. Txorroten iturri errenazentista dago han. Plazako jauregi barrokoan, herriko turismo-bulegoa dago.

San Nikolas kalean, Nafarroako errege-erreginen antzinako jauregi erromanikoa dago,

Gustavo de Maeztu pintore espresionistaren egoitza egun. San Pedro Ruakoa eliza ere kale horretan dago, toki berezi batean; klaustro erromanikoa du.

Egaren hiria atzean utzi eta berehala, Iratxeko monasterioa dago. Erdi Aroko, Errenazimenduko eta Barrokoko eraikuntzak ditu monumentu-multzoak. Monasterioaren ondoan dagoen iturria oso ospetsua da. Bi txorrotak ditu erromesak aukeran: bata, ura ematen du, eta besteak, ardoa. Freskagarria bezain ezinbestekoa da han gelditzea.

Iratxeko monasterioari agur esan, eta bitan banatzen da bidea: Villatuertatik bi adar dau



Estellerriko mahastiak



Lizarra, Rua kalea



Lizarra, San Pedro Ruakoa eliza



Iratxeko monasterioa

de: bata, Lizarratik pasatzen da, eta bestea, Iratxeko monasteriora eta Lukinera doa.

Donejakue bideak Azketa eta Villamayor de Monjardín zeharkatuko ditu. Monjardínera iritsi aurretik, Erdi Aroko uharka bat topatuko duzu, eta, herrian, eliza erromaniko bat. Zilarrez forratutako kristo erromaniko bat dago elizaren barruan, Erdi Aroko imajinagintzaren benetako harribitxia. Mendiaren goialdean, Erdi Aroko gaztelu zahar baten aurriak daude.

Donejakue bideak **Villamayor de Monjardín**erantz jotzen du. San Andres eliza erromanikoa (XII. mendea) duzu zain herran, baita haren dorre barrokoa ere (XVIII. mendea). Herritik kanpo, mairuen iturria dago, 1200. urteko uharka ederra. Arku bikiko fatxada du.

### Los Arcosera bidean

Bi kilometro ibilita, Urbiolako errepidearen bidegurutzearekin topo egingo duzu. Iturri bat dago han. Ez galdu aukera hidratatze-

ko, ez baituzu herririk aurkituko Los Arcoserairaino geratzen diren hamar kilometroetan. Adi seinaleei, ez galdu gezi hori begi-bistatik. Gozatu paisaiarekin: zereal-soroak, zainzuri-sailak, mahastiak, olibondoak eta almendrontoak.

Kale Nagusitik sartuko zara **Los Arcosera**. Herrigunea Erdi Arokoa da. Antzinako erro- mes-ospitaleak aterpetxe modernoagoak dira gaur egun. Jarraitu San Maria plaza arkupeduneraino, eta bisitatu izen bereko eliza. Barrokoak Nafarroa osoan duen multzo harrigarrietako bat dela esan zidaten.

Utzi herria Gaztelako portaletik. Garaipen-arkua ematen du, tokiaren iragan loriatsu-aren adierazgarri garbi-garbia. Errepidea eta Odrón ibaia zeharkatuta, nekazaritza-pista bat hartu beharko duzu. Jarraitu seinaleei, Santsolgo errepideraino. Izen bereko herrira eramango zaitu errepideak. Aldapan behera, azkar-azkar, **Torres del Río**raino iritsiko zara. Gelditu eta hartu denbora han.



Los Arcos, Andre Maria elizaren klaustroa



Los Arcos



Torres del Río, Hilobi Saindua eliza



Viana

## Azken hamaika kilometroak

Herri atsegina da **Torres del Río**. Armarri apaingarridun etxetzar barrokoak era-kusten ditu kale estuetan barna. Ez alde egin herriko beheko aldean dagoen harribitxia ezagutu gabe: Hilobi Sainduaren eliza. XII. mendeko tenplu oktogonal bat aurkituko duzu. Faro bat zen antzina erro-mesentzat Jerusalemgo basilika gogora dakarren tenplu hori. Barruan zaudela, altxatu burua eta utzi kalifa-jatorriko izar-gangak, Eunatekoaren antzekoak, lilura zaitzala.

Viana, erromesak



“Lurralde Santua” amesten zuten eraikitzaileen azalean sentituko zara une batez.

Elizatik, herriko goiko aldera jotzen du bi-deak, maldan gora, Poyoko Birjina ermitaraino. Oso gorabeheratsuak dira hurrengo kilometroak, nekagarri-nekagarriak, baina merezi du ahaleginak, **Viana** (kultura-intereseko ondasun izendatua) monumentala baitugu zain bidearen amaieran.

Harresiak, oinetxeak, jauregiak eta elizak iraganeko loraldiaren adierazgarri dira, hala nola Andre Maria eliza. Portada erre-nazentista ederra du, eta, barruan, Cesare Borgiaen hilobia. Aita santuaren armada-ren burua, kardinala eta Alejandro VI.a aita santuaren beraren semea izan zen. Segada batean hil zuten, 1507an, Vianatik hurbil. Ez alde egin San Pedro elizaren aurriak eta Serrat parkea ikusi gabe.

Errioxako lur hurbilen ikuspegi polita izango duzu azken horretatik. ■




# *Frantziako bidea.*

Zangozatik Garesera



## Zangoza-Elo

*Aragoiko adarrak Garesen egingo du bat Frantziakoarekin. Zangoza-Elo etapak bi aukera eskaintzen ditu. Rocaforten barna doana hartzea gomendatzen dizut. Gogorragoa da, baina ez duzu ia asfatorik zapalduko eta inguru natural ederra izango duzu bidaide. Nahikoa indarrik ez baduzu, hartu Irunberriko arroilan barna doana.*



→ **Zangoza** (kultura-intereseko ondasun izendatua) herri monumentalean hasten da ibilbidea. Ez joan, dena den, Andre Maria eliza bisitatu gabe (XII. eta XIV. mendea). Begiratu arretaz atariari, eta asmatuko duzu zergatik jotzen den erromanikoaren lan goreneta-kotzat. Jauregi, eliza edo komentu ederrak topatuko dituzu herrian, hala nola Vallesantoro eta Vianako printzearena, San Salbatore eta Santiago, eta Karmen eta San Frantzisko Asiskoa, hurrenez hurren.

**Xabierko gatzelutik** hurbil (8 kilometrora) dago Zangoza, hots, San Frantzisko Xabier-

koaren jaioterritik. Askotan berritu eta zahar-berritu da, eta, horri esker, egitura erakutsi eta Erdi Aroko bizitza nolakoa zen ezagutzen laguntzen duten bakarretako bat da.

Zangozako zubia igaro ondoren, hartu Iruñeko errepidea eta, gero, **Rocafort**erako desbideraketa. Handik metro gutxira, bide bat aurkituko duzu, eta aldapa gogor batek Rocaforteraino eramango zaitu. "Zangoza zaharra" izenaz ere ezaguna da Antso I.a Gartzetz Nafarroako erregearen sorlekua izandakoa. Labore-soroen gaineko ikuspegi ederra izateaz gain, Andre Maria eliza gotikoa ere badu herriak, baita San



Zangoza, Andre Maria eliza



Rocaforte



Irunberriko arroila

Bartolome ermita eta San Frantzisko Asiskoaren iturria ere; santuak fundatu zituen bai iturria, bai ermita. Zinez aldapa gogorra da. Eraman, beraz, ura eta likidoak hidratatzeko.

Zereal-soroak, mahastiak eta olibondoak zeharkatuko ditu bideak, Oibarko parke eolikoa goian dagoela. Handik aurrera, dosifikatu oso ongi indarrak. Handik aurrera, dosifikatu oso ongi indarrak. Izan ere, hamabi kilometro geratzen dira hurrengo herrira iritsi arte, haran eta pinu gorrietan barna. Izko da, eta gurutze bat du sarreran. Ordainetan, paisaia zoragarriaz eta naturak eskaintzen duen isiltasun desestresagarriaz gozatuko duzu.

### Beste aukera erreserba natural izendatutako arroila baten barna doa

Erosoagoa da alternatiba hau, baina beste bezain ederra, eta horregatik da erakargarria. Rocaforterako desbideraketa hartu beharrean, zuzen jarraitzea proposatu zidaten, **Ledearaino**. **Leireko monasterioa** hurbil dago. Oinez doazen erromesak ez dira handik pasatzen, baina merezi du multzo monumentala bisitatzea, kultura-intereseko ondasun izendatu baitute.. San Virilaren kondaira kontatuko dizute han. Abade batek ez zuen betikotasunaren dilema ulertzen, eta txundituta geratu zen txori-txo baten txioaz. Monasteriora itzuli, eta hirurehun urte igaro zirela konturatu zen, eta ez une bakar batzuk.

Bideak Irati antzinako trenbidearen bide berdeari jarraitzen dio, sigi-saga. **Irunberriko arroila** zeharkatzen du, 150 metroko altuera ere duten pareta bertikalen artean doan zintzurra. Gogo-gogoan dut buruen gainetik hegan egiten zuten saiak. Ikuskizun zinez ederra! Irunberritik, **Nardoze** eta Aduate aldera doa bidea, **Izkoraino**.

### Elorantz, Nafarroako errege-erreginen ehiza-egoitzarantz


Herri txiki horren sarreran, gurutze moderno batek eta haranari eta haraneko herriei buruzko informazio-panel batek egingo dizute ongietorria. Orduan, pista bikain batek **Abintzao** herrira eramango zaitu. Hango Done Petri elizak ukitu erromaniko nabarmena du. Ordubete beharko duzu pistaren helmuga den hurrengo herriraino iristeko, Elomendi hunkigarriaren (1.295 m) begiradapean: **Getze Ibargoiti**. Zereal-soroek inguratuta, Erdi Aroko zubi ederra du herriak, arestian zaharberritua.

Etaparen azken zatia harizti baten barna doa, **Eloraino**. Nafarroako errege-erreginen ehiza-egoitza izan zen herria. Erai-kuntza gotikoko zubi baten eskutik sartuko gara herrian. Handik, eraikin zainduak erakutsiko dituzte harriztatutako kaleek, labirinto-itxurakoek, hala nola Burguaren kalea, azpimarragarriena. Paseatuz gero, Natibitate eliza bisitatu ahalko duzu, Erdi Arokoa, baita gazteluaren hondakinak ikusi ere, herriaren gaineko muinoan. ■



## Elo-Gares

**Aragoiko bidearen etapa hau gogorra suerta daiteke lehenengo kilometroetan dauden desnibelengatik, baina badu Frantziako bidearen erakargarritasun handienetako bat bere azken zatian: Eunateko Santa Maria ermita erromanikoa.**



→ Elon barna karrikaz karrika ibili eta gero, Elortz ibaira jaisten den pista batetik ateratzen da ibilbidea herritik. Segitu ibai-bazterretik eta hartu Iharnotzera igotzen den bidezidorra. Herri horretan, hango Erdi Aroko dorrea izan zen nire arreta gehien erakarri zuen eraikina. Eraikin horretaz gain, aipatzekoak dira Erdi Aroko kutsuko etxeak eta Natibitatea eliza.

Iharnotzetik abiatuta eta lehengo erromesen bideari segituz, **Otanora** ailegatuko zara, mendilerroaren orografia aldakorrari ahal duen bezala egokitzen zaion bidexka batetik. Oroitzen naiz bidearen zati honetan larreak

eta basoak tartekatzen zirela, Iruñerriko hiri-irudia beti hondoan izanda. Otanora iritsitakoan, aprobetxatu leinuetxeko antzinako jauregia eta Erdi Aroko zubia begiesteko.

Ibilbideak Ezperunen barna jarraitzen du, gaur egun erabiltzen ez den errepede baten ondoan; herri horretan ez da inor bizi orain. Segitu Gerendianera ailegatu arte. Herri oso zaindua da eta geranioekin apaindutako etxe monumentalak ditu, baita Donejakue bideari erreferentzia egiten dion dekorazio asko ere. Une horretan, agur esan beharko diogu Elortzibarri.



Eunateko Andre Maria ermita erromanikoa

### Leinuetxe bati bisita egitea

Seguru nago aurrera egin ahala zure hankak nekatzen ari direla. Niri hala gertatu zitzaidan, eta aitortu behar dut esfortzua sarituztat jo nuela **Tiebasera** eta hango gazteluko aurrietara (XIII. mendea) ailegatuta: Tibalt II.a erregearen garaian jauregi ederra izandako gazteluaren historiaren berri izan nuen. Erregeak Frantziako artista eta artisauak ekarri zituen erakin eder bat egiteko, baina, zoritxarrez, Independentzia Gerran suntsitu egin zuten. Herria zeharkatutakoan, hartu AP-15 autobidearen paralelo doan bidea. Loturetako batean aurkituko dituzun lur azpiko bi pasabideetan barna gurutzatu duzu autopista.

Jo **Muru Artederretara** eta, herri txiki horretara ailegatu baino lehen, **Olkotzera** eramaten duen tokiko errepideari jarraitu; herri horretan, geldialditxo bat egin dezake-

zu XV. mendeko leinutxe-dorre bikaina bisitatzeke. Badu Erromanikoari buruzko interpretazio-zentro bat, erakusketekin, eta dorrearen gainean dagoen almenadun terraza, inguruko ikuspegi ederrez gozatzeko. Hango San Migel parroikia-eliza ere galdu ezinezko erakargarritasunetako bat da, haren portada Eunatekoaren ispilua baita, baina zenbait alderekin. Bisitatu aurretik, ikusi interpretazio-zentroko erakusketa, han azaltzen

Elo, Erdi Aroko zubia





Olcoz, jauregi-dorrea



Eunateko Andre Maria ermita



Gares, Santiago eliza



Gares, zubi erromanikoa

baitute zer-nolako harremana dagoen honako eliza hauen artean: Garesko Gurutzea eliza, Eunatekoa, Etxanokoa eta Olkozkoa bera.

Bideak inguratu egiten du Olkutz herria, eta, jaitsi ahala, Izarbeibarko ikuspegi zoragarria erakusten digu. Bost kilometrora, Eneritz aurkituko dugu, leku ederra indarrak berrietzeko. **Eneritzen**, Donejakue bideak duen harribitxietako bat aurkituko duzu: **Eunateko**

**Santa Maria ermita erromanikoa**, jatorri argirik ez duen XII. mendeko eliza bitxi eta misterioitsua. Historialari batzuen ustez, erromesen ospitale bat izan zen, tenplarioek egina, eta kondaira batek dio erregina edo andere bat lurperatzeko eraiki zela. Dakiguna da 1170ean eraiki zela eta plata oktagonala duela, Jerusalemgo Hilobi Santuak bezala. 33 arkupeko galeria batek inguratzen du, eta, barruan, eragin musulmaneko zenbait elementu aurkitu ahal izango ditugu.

Ibilbideko azken zatiak **Obanoseraino** eramango gaitu; Bideak eta San Gillen eta Santa Feliziaren kondairak markatutako herria da. Handik, **Gareseraino** eramaten duen bidea hartu; han aurkituko duzu XI. mendeko zubi bat, Donejakue bideko adibide erromaniko eder eta dotoreenetako bat. Santiago, Done Petri eta Gurutzea elizak ere interesgarriak dira. ■

Erromesak, koltza-soroak inguruan dituztela






# *Baztango bidea.*

Urdazubitik Arrera



## Baztango bidea

*Baionan lehorreratu eta Iruñerantz zihoazen bidaiariak erabili ohi zuten bidearen antzinako adarretako bat da Baztan ibarrean barna doana. Ohiko bidea bezain ezaguna ez bada ere, bereziki erakargarria iruditu zitzaidan: trazatu leuna, paisaia zoragarriak, pago- eta gaztainondo-baso itzelak, ardiz eta metaz blaitutako larreak, eta herri ederrak, harrizko baserriak eta jauregiak nonahi. Bost edo sei etapa dira guztira, eta bakoitzak 14 eta 22 km bitarte ditu.*




### 1. ZATI: Baiona-Uztaritze (14 km)

→ Bidearen abiapuntua **Baiona** da, Errobi ibaiak bustitako hiri lasaia, Pirinio Atlantikoetako Departamentuko hiriburua. Merezki du hango kaleetan barna ibiltzea, nora ezean, eta etxeen edertasunaz gozatu. Bat egiten dute haietan euskal arkitekturak eta frantziarrak, eta oso deigarriak dira

haien leiho-ohol koloretsuak. Zutik dirauten defentsa-izaerako egitura ugariak ere deigarriak egingo zaizkizu: zitadela, gaztelu zaharra, gaztelu berria edo Espainiako portalea.

Errobi ibaiaren bideari jarraiki, **Uztaritzera** iritsiko zara. Herri ederra da, eta etxeetako egurrezko egiturak oso ongi landuta daude;



Urdazubi, Ikaburuko leizeak

antzinako bizilagunen aberastasuna ekartzen dute gogora.

## 2. ZATI: Uztaritze-Urdazubi (21 km)

→ Gorabeheraz beteriko tarte bat dator orain. Herri ederrak zeharkatuko ditugu, hala nola **Ezpeleta**, piperrak etxeetako fatxadetan zintzilik erakusten dituenak, eta **Ainhua**, XVII. eta XVIII. mendeetako etxeak dituenak. Nafarroan sartuko gara, **Urdazubi**-tik. Herri txikia bada ere, toki ezin hobea da atsedean hartu eta hango altxorak ezagutzeko: San Salvatore monasterioa (IX. mendea), erromes-ospitalea izandakoa; XVIII. mendeko errota; eta Ikaburuko leizeak. Duela 14.000 urte eratu ziren, eta gerlarrien zein kontrabandisten bizilekua izan ziren. Sorginkeriarri lotutako misterio eta istorioak atsegin badituzu, alden du bidetik (4 kilometro) eta bisitatu **Zugarramurdiko** leizea. Akelarreak egin ohi ziren han, XVI. mendean.

## 3. ZATI: Urdazubi-Amaiur (21 km)

→ Baztan ibarretik jarraitzen du bideak. Eraikuntzen dotoretasuna du ezaugarri nagusi ingurune natural paregabe honek. Lehen geldialdia **Amaiur**ko monolitoan izango da. Hango gazteluak nafarrek Gaztelaren aurka, 1522an, erakutsitako erresistentziaren azken gunea izan zela gogorarazten digu. Herriak baditu hainbat erakargarritasun: zentro arkeologikoa-museoa, Jasokunde eliza, Erdi Arokoa, eta errota; eraberrituta

dago errota, eta irina erosi edo taloak dastatu ditzakezu han.

## 4. ZATI: Amaiur-Berroeta (19 km)

→ Bideak **Arizkunera** eramango zaitu. Bost auzotan banatuta dago herria, eta hauek guztiak ikusi behar dituzu han: jaur-etxeak, hala nola Urtsua jauregia, San Joan Bataiatzailea eliza, eta Santxotena museoa, zeinak Xabier Santxotena tailatutako egurrezko piezak, euskal mitologiaren figurak irudikatzen dituztenak, erakusten baititu; naturarekin zuzeneko harremanak sentituko dituzu han.

Handik lau kilometrora, **Elbete** dago. Askoa eta Jarola jauregi barrokoek egingo dizute harrera, baita makina bat pintorek mihisera emandako eliza bitxi batek ere. **Elizondora** sartzeko atea da Elbete. Baztan ibarreko hiriburua da, eta animazio eta bizitza handia dago. Hango jauregi ugariak, hala nola Arizkuneneak eta Purioseneak, Baztango Museoa, jauretxe handiek eta hiria zeharkatzen duen ibaiak liluratu





Elizondo, Santiagolua eliza



Belateko monasterioa

egino zaituzte. Ez alde egin herritik haren produktu tipikoa probatu gabe: hurrarekin egindako txokolata.

Herri txiki zoragarri askok lagunduko gaituzte bidean aurrera egin ahala. **Irurita** eta **Ziga** dira haietako bi. Azken horretako behatokiak ibarraren gaineko bista ederrak eskaintzen ditu. Hurrengo herriak **Aniz** eta **Berroeta** dira.

### 5. ZATI: Berroeta-Olague (18 km)

→ **Almandozeraino** segituko dugu, hots, Baztan ibarreko azken herriraino. Hantxe hasten dira Belateko mendateko lehen maldak. Belateko ermita-basilika eta erromes-ospitalea topatuko dituzu amaieran. Gelditu, eta so egin inguruneari.

Monolito ugari ikusiko dituzu, erromesaldien aztarnak lurralde honetan.

Iruñera hurbiltzen ari gara, apurka-apurka. Hainbat herri txiki igaroko ditugu, hala nola **Lantz**, non landa-inauteri ospetsu-ospetsuak egiten baitira, eta **Olague**, etaparen amaiera.

### 6. ZATI: Olague-Iruña (28 km)

→ Baztango bidearen azken etapak Ezkabartera garamatza. Oso hurbil gaude dagoeneko Iruñetik. **Sorauren**en, harrizko zubia eta parrokiak gordetzen duen prozesio-gurutze ederra nabarmentzen dira, eta, **Orikainen**, Santiago Apostolua elizaren erretaulak bisitatu beharko dituzu. Gero, **Arre** dago, monumentu-multzo interesgarria duena: **Arreko Hirutasuna ermita eta zubia**, erromatar jatorrikoa izan daitekeena. Basilika antzinako erromes-ospitale baten (XII. mendea) zati da.

Bidea **Atarrabiako** Kale Nagusian barneratzen da, eta, gero, **Burlata**-koan. Domingotarren eraikina eta Nekazaritzako Perituen Eskolako dira interesgarriak, besteak beste, biak Atarrabian. Ez galdu zoladuran dauden seinaleen arrastoa. Burlatako bidera eramango zaituzte, eta, gero, **Iruñera**. ■

Lantzeko inauteria






# *Ebroko bidea.*

Cortestik Castejónera



## Ebroko bidea

**Mediterraneotik zetozen errimesen igarolekua ere bazen Nafarroa, Frantziako Donejakue bidearekin bat egin nahi zutelako. Nafarroako Erriberan, Cortesetik sartzen da Ebroko Ibilbidea, eta Errege Ubideari jarraitzen dio, Ribaforadan, Fontellasko Bokalean, Tuteran eta Castejónen geldialdiak eginez Logroño bidera jo arte. Jakin nahi baduzu nola bizi izan ziren zona horretan elkarrekin arabiarak, judutarrak eta kristauak, edo paisaien kontrastea ikusi, gogoan hartu ibilbide hori.**



Ebroko bidea bi etapatan egitea gomendatu zidaten, baina fisikoki duzun egoeraren arabera erabakiko duzu kilometro gehiago edo gutxiago egitea.

### 1. ZATI: Gallur-Tuter (36 km)

→ Gogorrena da, eta ez desnibelengatik, luzerarengatik baizik. Hauxe aholkatzen dizut: eraman likidoak eta indarrak be-rritzeko janari pixka bat. **Gallur** (Aragoi) da abiapuntua, eta herri horretako goialdea Eboren gaineko balkoi bikaina da. Merezi du han geldialditxo bat egitea eta ikuspegi z gozatzea.

Ibilbideak hamar kilometroz jarraitzen du, Mallénera ailegatu arte, eta, handik, Cortes aldera jotzen du; herri horretan, XII. mendeko gaztelu bat izango dugu zain, Nafarroako zenbait erregeren bizilekua izan zena eta Erresumako gotorleku nagusietako bat. Ez galdu kanpoaldean dagoen udal-parkea. Ahateez, antzarez eta beltzargaz gain, xake erraldoi bat aurkituko duzu; jokatu han partidatxo bat. Cortesen, San Migel patroiairen egunean (irailaren 29a), lurralde osoan makilekin egindako dantzarik ospetsuena egiten da, Cortesko makil-dantza.



Tutera, Andre Maria katedrala



Cortes, gaztelua

Errege Ubidearen urei jarraituz, **Ribafora-****daraino** ailegatuko zara; han, XVI. mende-ko eliza mozarabiar bat ikusteko aukera izango duzu. Bost kilometro aurrerago, Fontellasko “El Bocal” aurkituko dugu. Paraje hori edertasun natural handikoa da, eta Karlos V.aren jauregiak han du kokalekua. “**El Bocal**” natura-ingurune ederrean, Erriberako ibai-basoaren paisaia tipikoaz gozatu ahal izango dugu, baita jauregiaren inguruko lorategi ederrez ere.

Bake- eta lasaitasun-oasi hori utzi eta **Tutera** aldera jo, trenbideari jarraituz. Erriberako hiriburura ailegatu eta gero, galdu zaitez hango kaleetan eta disfrutatu hango mestizajeaz eta erakargarritasun handienez, hala nola: Santa Maria katedrala, 1180. urtean eraikia antzinako mesquita baten gainean; Dekano jauregia (XVI. mendea); Udaletxea; Magdalena eliza erromanikoa; eta jatorri zaharreko beste zenbait eraikin, esaterako, Almirantearen etxea, Uharteko markesaren etxea, Castel Ruiz kultura-zentroa, Muñoz Sola museoa edo Monreal do-rra. Aprobetxatu etaparen bukaera ongi merezitako atseden hartzeko eta barazki-menestra edo beste plater izarretakoren bat (orburuak, kardoak, zainzuriak, borraja edo kukuluak, besteak beste) dastatzeko.

Tuteratik oso hurbil, Errege Bardearen Parke Naturala dugu, 42.500 hektareako paisaia erdibasamortuar ikusgarria. Hango forma natural bitxiengatik eta ilargi-pasa-iarekin duen antzekotasun handiengatik, zenbait film eta serietan agertu da.

## 2. ZATI: Tutera-Alfaro (23 km)

→ **Tuteratik**, Ebroko zubia zeharkatuz ateratzen da; Erdi Arokoa da zubia, 17 arkukoa, eta, seguru asko, aurretik zegoen eraikin musulmanaren gainean egin zen.

Jarraitu hori koloreko geziei eta ekin berriz bideari. Lehenbiziko kilometroak zolatutako bide batean barna egingo ditugu, baina, hortik aurrera, lurrezko bidexka bat izango dugu Castejónerraino. Herri horrek lotura handia du trenarekin. Trenbide-garraioarekin lotutako makinak eta objektuak biltzen dituen museo bat dago herrian; horien artean, badu miniaturazko maketa bat, 1930eko geltokia irudikatzen duena; horrez gain, badaude inguru hartan aurreko garaietan bizi izandakoen tresnak eta objektuak, besteak beste Burdin Aroko asko.

Bost kilometroz aurrera eginez gero, Errioxako **Alfaro** herria aurkituko duzu; han, honako hauek dira nabarmentzekoak: Abadia edo Abade jauregia (XVIII. mendea) eta San Migel kolejiata, XVII. mendearen bukarako barrokoaren maisulana. ■

Tuterako kukuluak





An aerial photograph of a mountain valley. In the background, a large, flat-topped mountain range stretches across the horizon under a cloudy sky. The middle ground shows a lush green valley with a patchwork of fields, a small town with red-roofed buildings, and a winding river. The foreground is dominated by a dense forest of dark green trees.


# *Sakanako bidea.*

Trazadura berri batek Iruña eta Gasteiz lotzen  
zituen donejakueko bidea berreskuratu du



## Sakanako bidea

***Bidea Irurtzunen hasten da eta, belardi eta baso artean, Sakanako herriak gurutzatzen ditu, ermitak han-hemenka agertzen direla, hala nola Itxasperriko Santiago eta Zamartzeko monasterioa, Ziordiraino, Arabako lurretan sartu aurretik.***



I. mendean, erromatarrek “Iter XXXIV” galtzada erromatarra eraiki zuten. Bordele (Frantzia) eta Astorga (Leon) lotzen zituen, eta erromesek bide hori erabili zuten Santiagora joateko. Horixe adierazten dute Zamartzeko monasterioan aurkitutako aztarnak (erromesen ospitalea izan zen Erdi Aroan).

Erromesek XI. mendera arte erabili zuten galtzada hori. Orduan, Antso Nagusia erregeak erromesek Santiagora joateko erabiltzen zuten bidea berrantolatu zuen. Ondorioz, aldatu egin zen Nafarroan barnako ibilbidea. Gaur egun, Bide Frantsesa

da ibilbide nagusia eta ezagunena, eta Sakanako bidea ez da erabiltzen.

Sakanako bidea –Bide ahaztua edo Asturiasko bidea ere deitzen zaio– berreskuratu egin da azken urteotan, jatorrizko trazadura errespetatuta betiere. Izen bereko ibarreko 14 udalerritatik igarotzen da, Irurtzundik Ziordiraino, Araban sartu aurretik. 46 kilometro ditu.

Ibilbidean, honako hauek ikusi ahal izango dituzu: Itxasperriko Santiago ermita erromanikoa, Egiarretan (Arakil), eta Zamartzeko monasterioa, Uharteko Arakilen, nabe bakarreko eraikin erromanikoa, zeinak



Itxasperriko Santiago ermita



Zamartzeko monasterioa



Aralarko San Migel santutegi

portada baitu ezaugarri nagusi, Esteban mai-suaren eskolaren barruan landua. Ondoan, espiritualitate-etxe bat dago, erromesak hartzen dituen. Santiago ermita ere topatuko duzu, Bakaikun, erretaula polita duena, eta San Pedro ermita ere, Altsasun. Ermita horretan, Gartzia Semenoitz errege izendatu zuten, 717. urtean. Nafarroako lehen erregea izan zen.

Bidetik oso gertu, Aralarko San Migel santutegia dago. Aralar mendian dago, 1.241 metroko altitudetan eta Uharte Arakildik 10 kilometrora. Eliza erromanikoaren barruan, esmalteko frontal bat ikus daiteke, XII. mendeko urregintzaren maisulana, eta Aralarko San Migelen irudia. Bidean, Nafarroako gailur ikusgarrienetako bat ikusiko duzu, Beriain mendia. Gailurrean, San Donato ermita dago.

46 kilometro baino gehiago ez dituenez, erabaki zuk zeuk zenbat tartetan egin, zure sasoi fisikoaren arabera, zenbat denbora duzun edo bizikletaz edo oinez egiten duzun. 15 kilometroko 3 zatitan banatzen baduzu, adibidez, oso erosoa da.

Hoteletan, kanpinetan, landa-etxeetan eta apartamentuetan har dezakezu ostatu, ia herri guztiek baitute halakorik. Bidean, inguruko gastronomia aparta dastatu ahalko duzu, hala nola ardi latxen esneaz egindako gazta, mamia, arkume-haragia, txahal-txuleta, txistorra eta sagardoa. ■

<http://donejakuebidea.sakana.eus/es/>





# Nafarroa, Bidean lehena



## Beste erkidegoetako turismo-bulegoak

### → Jaca

974 360 098

[www.jaca.es](http://www.jaca.es)

### → Logroño

941 291 260

[www.lariojaturismo.com](http://www.lariojaturismo.com)

### → Burgos

947 203 125

[www.turismoburgos.org](http://www.turismoburgos.org)

### → Palencia

979 706 523

[www.turismocastillayleon.com](http://www.turismocastillayleon.com)

### → León

987 237 082

[www.turismocastillayleon.com](http://www.turismocastillayleon.com)

### → Lugo


982 870 492

[www.turgalicia.es](http://www.turgalicia.es)

### → Santiago

881 886 390

[www.caminodesantiago.gal](http://www.caminodesantiago.gal)



## Nafarroako turismo-bulegoak

### FRANTZIAKO BIDEA (Orreagatik)

#### → Orreaga

Antiguo Molino  
31650 Orreaga/Roncesvalles  
948 760 301  
☎ 690 090 483  
oit.roncesvalles@navarra.es

#### → Iruña

C/ San Saturnino, 2  
31001 Pamplona  
948 420 700  
oficinaturismo@pamplona.es

#### → Gares

C/ Mayor, 105  
31100 Puente la Reina  
948 341 301  
turismo@puentelareina-gares.es

#### → Lizarra

C/ San Nicolás, 1  
31200 Estella-Lizarra  
848 420 485  
oit.estella@navarra.es

#### → Viana

Pza. de los Fueros, 1  
31230 Viana  
948 466 302  
turismoycultura@viana.es

### FRANTZIAKO BIDEA (Somportetik)

#### → Zangoza

C/ Mayor, 2  
31400 Sangüesa  
948 871 411  
oit.sangüesa@navarra.es

### BAZTANGO BIDEA

#### → Bertiz

Centro de Turismo Rural  
31720 Oieregi  
948 592 386  
oit.bertiz@navarra.es

#### → Urdazubi

Monasterio de Urdax  
Pza. San Salvador  
31711 Urdazubi/Urdax  
948 599 070  
turismo@urdax.es

#### → Elizondo

Museo de Baztan  
31700 Elizondo  
948581517  
baztangomuseoa@baztan.eus

### EBROKO BIDEA

#### → Tutera

Plaza de los Fueros, 5-6  
31500 Tudela  
948 848 058  
oit.tudela@navarra.es

### SAKANAKO BIDEA

#### → Lekunberri

Plazaola Kalea, 21  
948 507 204  
oit.lekunberri@navarra.es

### Larrialdia (112)





[www.visitnavarra.es](http://www.visitnavarra.es)

Tel. +34 848 420 420

     
@visitnavarra